

Poesia

PAKO ARISTI

Ni eta Gu
Zazpigarren uhina



erein

NI ETA GU
ZAZPIGARREN UHINA

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROa (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.

1. argitalpena: 2021eko martxoan.

Azalaren diseinua:

Iturri

Argazkiak:

Pako Aristi

Maketazioa:

Erein

© Pako Aristi

© EREIN. Donostia 2021

ISBN: 978-84-9109-640-5

L. G.: D 217-2021

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

erein@erein.eus

www.erein.eus    

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008 F 943 130 822

e-mail: edizioak@itxaropena.net

www.itxaropena.net

Pako Aristi

NI ETA GU
ZAZPIGARREN UHINA



erein

Greziarrek zazpi urteko arotan
banatzen zuten gizakiaren bizitza.
Lehen zazpikoa haurtzaroa zen,
hurrengo biak, gaztaro,
ondorengo lau, helduaro,
hortik aurrera, zahartzaro.

Kultura zeltikoetan zazpigarren alaba
sorgina izan ohi zen.

Zazpigarren uhinak eramaten ditu
lanperna biltzaileak
itsasoaren altzora.

Zazpi urte irauten du
amodiotik bizitzea
merezi duen edertasunak.

Zazpi ziren munduko mirariak,
zazpi, Egiptoko izurriteak,
zazpi, Erromako muinoak,
zazpi, bekatu larriak,
zazpi, Liz Taylorren senarrak,
zazpi buru ditu munstroak,
eta zazpi tiroz hil zuten
Melitón Manzanas.

Eta hau nire zazpigarren
poema liburua duzu,
nire haurtzaroko azkena.

1

Nori begira hasi
egun berri bakoitza,
noren hitzak entzun,
noren irria erdietsi
lehen pausoak
abiatzeko orenean.
Aurkitzen duzun lehen pertsonak
darama zure egunaren tonua,
eta zuk besterena;
orquestra bat gara.

Albak ateratzen nau ohetik,
egunsentiaren irrika hutsa
da niretzat gaua.
Ez dut jada musikaarik behar
–Van Morrison, mila esker!–,
argiaren tirainak narama
oinatzik gabeko kaleetara.

Han egongo da Josu,
denbora darama dagoeneko
pintxoak prestatzen.
7:30ak puntuan argiak piztu
eta plaza iluminatuko du.
Bitoriano eta Estanis
atarian dira ordurako,

hego-haizea, bisuts edo izotz,
gauari nagiak kenduta.

Josu iraganaren laburpen bat da,
ezagutu ditudan barman
guztien bertuteak dauzka.
Diosala beti ezpainenetan,
ez du galderarik egiten,
baina entzuten daki,
baikor mintzo da beti,
eta alabarentzako balitz bezala
prestatuko dizu kafea.

Haren presentziak
eguna samurtzen du,
gizon berri bilakatzen nau,
datorrenari ikararik gabe
heltzeko prest.
Taberna uzten dudanean,
mundua lehen aldiz
ikusten dutenen begirada
oparitzen dit,
agian hori egiten duenik
berak ere jakin gabe.

Eta hori da lagun baten
dohainik gorena:
bera ohartu gabe
ezinbesteko bihurtzea
besteentzat.

Terrazara ateratzea aski dut
 munduaren lau puntu kardinalak ikusteko.
 Ezkerrean, Akua bailara,
 eguzkiaren sorleku,
 hasiera guztien aztia.
 Aurrean, Izarraitzen gailurra,
 elurtua denean
 Fuji mendiaren antzeko.
 Eskuinean, Endoiako bidea,
 iluna ekarriko duen
 itsasoaren muraila.
 Eta eskuinerago, zu,
 terrazan erratza astintzen
 edo arropa esekitzen.

Irri egiten didazu,
 eskuarekin diosal.
 Eguzkirik ez denean,
 zure soa da niretzat eguzki,
 zure irribarrea,
 hona iritsi nintzeneko
 egunetan ongiatorri.
 Zu Artizarraren ordezeko,
 seinale bila nenbilenean.

Terrazara ateratzea aski dut
Akuan eguna jaiotzen ikusteko,
Izarraitz begien parez pare,
Endoiako mendiak eskuinean
argiaren gaubide,
eta apur bat eskuinerago, zu,
eskuarekin diosal eginez,
eta irri,
etxean nagoela
sentiarazten nauen
irri arrotz ederra,
arbasoek Zestoa deitu zuten
haizearen pasaleku honetan.

Iristen da egun berri bat
 eta ni pozak txoratzen
 ohetik jaikitzeko.

Zer izango ote, zer ikusiko
 eta zer entzungo,
 zenbat begirada eta emozio,
 luzatuko da, edo
 mehetuko
 estrofa
 hau
 bez...
 gauean berriro bere baitan
 bildu eta hiltzeko.

Kantari noa kalean
 eta jendea harriturik niri so,
 ni harritzen naiz
 haiei begira,
 nitaz direlako harritzen
 eta ez bizitzaz.

Automata bihurtuak
 begitantzen zaizkit,
 eguna nola gaindituko
 nola gaineretik kenduko

—orri bat gutxiago egutegian—
egun ideal batera iristeko.

Baina egunek ez dute
egutegirik ezagutzen,
haien handitasuna
eskaintzen dizute doan,
etorkizuna emeki-emeki
ahantz dezazun
goizero.



Erlaxatzen nauten gauzak:

baporeak portuan ikustea,
emakumeak sareak konpontzen,
bisera beltza daramaten gizonak,
balkoian ardoa edaten duten bikoteak,
zure begirada aurkitzea...

eguzkiaren txindurri-kilimak,
belaontzien orratzak kulunkan,
egunsenti aurreko kafea,
hontzaren uluak gauean,
geltokietako tren hutsak...

ipuin taoistak irakurtzea,
boligrafoa eskura edukitzea,
arrain usaina parrillan,
kopa bat Benedictine igandeetan,
zure begirada ez aurkitzea...

Hizkuntzak samurra behar du izan
 herriarekin, eman baitizkio
 arnasa, bihotza
 eta mendeak igarotzen
 ikusteko plazer-hatsa,
 eta hilezkor izateko aukera,
 hilezkortasunik bada,
 hizkuntza baita desagertzen azkena
 herri bat iraungitzera doanean,
 herri hori harro egon bada
 bere burua izendatzeko
 eta munduaz jabetzeko
 hartu zuen mintzairaz.

Hizkuntzak eskaini behar dizkio
 herriari ohorea
 salbatuko dioten hitzak,
 etsaiak bortxaz txertatu zion historia
 birrinduko duten esaldi ahaltzuak,
 ondorengo belaunaldiak
 lotsaizun izan ez daitezen
 euren izenaz, direnaz eta
 arbasoek egin zutenaz.

Hizkuntza batek
diamantea behar du izan
bere herriarentzat,
izotz, negar eta kresalezko
egunsentiaren erdian.